

Ari gara

Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialeko Lehenengo maila

Pello Mateos Yeste, Garbiñe Urreizti Lezertua



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza eta Kultura
Departamentua

Argitaratzen du: Nafarroako Gobernua
Hezkuntza eta Kultura Departamentua
Euskara Zerbitzua

Egileak: Pello Mateos Yeste eta
Garbiñe Urreizti Lezertua

Marrazkiak: Regina Salcedo Irurzun

Diseinua: RBK, Diseinu eta Komunikazioa

Imprimatzen du: Castuera

L.G.: NA 323-2002

ISBN.: 84-235-2200-8

Ari gara

Iaz, EOIDNA-ko Euskara Departamentua abian jarri zenean, gure ikastetxe kolaboratzaileei ohikoa (maila bakoitzaren kurrikulua, ebaluazio irizpideak eta azterketak) eskaintzeaz gainera argi ikusi genuen Bigarren Hezkuntzako irakasleei zertxobait gehiago eskaini behar zitzaieela: guk proposatutako kurrikulua ikasgeletan aurrera eramaten lagunduko zion ikasmaterial xorta xume bat, alegia.

Ikasmaterial hau sortzera bultzatu gintuen arrazoia kurrikuluaren beraren izaeran aurkitu behar dugu. Izan ere, EOIDNA-ko A ereduko 1.mailari zegokion kurrikulua prestatzerako orduan, HABE-k plazaratu zuena hartu genuen oinarritzat. HABE-ko kurrikuluak zerbait ona badu, eta alderdi on asko ditu, ikaslea komunikazio eraginkor eta praktikora bultzatzeko asmoa da. Horixe nahi genuen, ohiko irakasbide memoristiko eta gramatikal horretatik aldentuta, Bigarren Hezkuntzako A eredu-ko gure ikasleei komunikaziorako bide ematea.

Ari gara materialaren helburua ikasgelan lau trebetasunak lantzea da. Lau trebetasunetatik mintzamina izan da orain arte gelan lantzeko aukerarik izan ez duena, ohitura falta batetik, eta gela-ko ikasle kopurua bestetik, izan dira gure ustez trebetasun hau ez lantzearen arrazoi nagusiak. Guk eskaini dizuegun materialean, beraz, beste trebetasunen artean mintzamenari ere lekutxo bat egi-tea proposatu dizuegu.

Nozio komunikatiboa oinarri delarik, esaldiak egituratu ahal izateko errekurtso gramatikalak gelako irakasleak zabaldu beharko ditu, betiere material osagarria baita guk sortu duguna. Gure liburu honetan ez dira betiko eta beharrezkoak diren azalpen gramatikalak aurkituko, gure programazioan mailaka definituak agertzen direnak, hauek gelako irakasleak inork baino hobeto azalduko dituela uste dugu.

Ari gara ikasmateriala bi zatitan aurkeztu nahi izan dugu: irakaslearen liburua eta ikasleena. Lehenengoan irakasleek baliagarriak izan dakizkieteen informazioak aurkituko dituzte, hala nola jarduera bakoitzaren euskarriak (testu-mota, kontestuko ezaugarriak, adierazpide linguistikoak...), prozedura, soluzioak... Bigarrenean ikasleek egin beharko dituzten zeregin guztiak, modu erakar-garrian aurkeztuak, biltzen dira.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi genizkieke Nafarroako Gobernuko Araubide Bereziko Irakaskuntzaren eta Teknologia Berrien Zerbitzuari eta bereziki Euskara Zerbitzuari, hauen lagun-tzarik gabe lantxo honek ez baitzuen argia ikusi izango. Era berean, gure eskerrik beroena Nafarroako Gobernuko Ikasliburu eta Materialen Unitate Teknikoari argitalpen prozesu tekniko guz-tia bere gain hartu duelako. Azkenik ez genituzke aipatu gabe utzi nahi izango iaz EOIDNA-ren proiektuan A ereduan aritu ziren irakasle guztiak, haien ekarpena balio handikoa izan baita. Horiei ere eskerrak.

Aurkibidea

5. Klima eta Geografia	7
6. Lan eskaintza	21
7. Aisia: telebista eta liburuak	37
8. Aisia: zinema	49
9. Aisia: musika	67
10. Aisia: bidaiak	81



5

Klima eta geografia

Dena berde-berdea da

1.

Jarduera

Berriketan



Mintzamena



Zein motako sentazioa dakarkizu irudiaren inguruko giroak?

- | | |
|--------------------------------------|-----------------------------------|
| <input type="checkbox"/> lasaia | <input type="checkbox"/> tristea |
| <input type="checkbox"/> aspergarria | <input type="checkbox"/> zikina |
| <input type="checkbox"/> baketsua | <input type="checkbox"/> naturala |
| <input type="checkbox"/> ekologikoa | <input type="checkbox"/> neketsua |

Hirunaka jarrita, bakoitzak bere iritzia eta honen zergatia **ahoz** azaldu behar du.

Gero, talde txikian ateratakoa, talde osoan aurkeztuko da.

2.A

Euria, orain ere!

Jarduera



Entzumena

Jarraian, Andoni Aizpuruk, Bertatik Bertara saioan, azaroko bi egunetako eguraldiaren berri emango digu, “GAUR”koa eta “BIHAR”koa, beti egiten du horrela. Bideoa ikusi eta entzun ondoren, erantzun galderei edo jarri gurutzea erantzun egokiaren ondoan.

GAUR



1. Elurrik bota al du?.....
Non?



2. Gauean, zer ageri dira zeruan, diz-diz?

BIHAR

1. Andoniren ustez, gaurko eguraldiarekin konparatuz, nolakoa izango da biharko eguraldia?

- hotza
- polita
- epela




2. Termometroek, zer egingo dute?

- gora
- behera

3. Oro har, zer izango da itsasoan?

- itsaso barea
- itsaskia
- itsaski zakarra



2.B

Jarduera

Guk uste dugu...





Mintzamina

Orain, Euskal Herriko mapa aurrean duzuela, Euskal Herrian bihar ze eguraldi egingo duen asmatu behar duzue. Beraz, behean dituzun ikurrak mapa gainean marraztuz, iragarri, euskaraz mintzatuz, **BIHARKO EGURALDIA**.

Gero, **TELEBISTAKO SAIOA** prestatuko dugu. Talde bakoitzak prestatutakoa, telebistan egiten duten moduan aurkeztuko dio talde osoari.

ARABA, BIZKAIA, GIPUZKOA, NAFARROA, NAFARROA BEHEREA, LAPURDI, eta ZUBEROAko eguraldia



Oskarbi
Ostarteak
Behelainoa
Zaparradak
Euria
Estalia
Kazkabarra



Ekaitza
Haizea
Itsaskirria
Itsaskia
Itsaso zakarra
Elurra

3.

Jarduera

Basoan



Entzumena

Oraingoan Andoniren programan, Aretxabaletako Javier Oñederrak, mendian aurkitu dituen perretxikoak erakutsi dizkigu. Bideoa bi edo hiru aldiz ikusi-entzun eta gero, ea asmatzen duzun hurrengo galdera. Jarri gurutzeak:



Perretxikoak, zein zuhaitz moten artean agertu dira?

- pinua
- pagoa
- aretxa (haritza)
- urritza
- artea

**Saiatu aipatutako zuhaitzak ezagutzen!
Elkarri galdetu edo irakasleari, noski!**

4.A

Non dago Inski?

Jarduera



Irakurmena

Irakurri eta saiatu ongi ulertzen Aizu! aldizkariko hurrengo testutxoa:

“Inski duela hiru urte jaio zen Warminskin, Poloniako iparraldean. Berez ez da birus gaiztoa, baina birusa da azken finean eta berezkoa du dena hankaz gora jartzeko joera. Azken bolada honetan gure ordenagailuan hartu du ostatu eta, dibertimendu modura, hileru esaldi bat aldrebesten digu. Horregatik eskatzen dizuegu laguntza, ea harrapatzen duzuen Inskik kutsatutako esaldia. Antzemateko erraza da: Inski ez dago euskaraz alfabetatua eta inski atzizkiaz bukatzen ditu esaldi guztiak”. Laguntzen badiguzu antolatuko dugun zozketan parte hartuko duzu*.

*Aizu! aldizkaria
2000ko azaroa*



Orain, erantzun galderei:

1. Zer da Inski:

.....

2. Non bizi da?

.....

3. Zer egiten du hileru?

.....

4. Nola bukatzen ditu hitz guztiak?

.....

SEGI, SEGI..., INSKIREKIN EZ DUGU BUKATU

*ZOZKETA: 3 musika CD zozketatuko ditugu idatziko duten ikasle guztien artean.

4.B

Jarduera

Zer egin digu oraingoan?



Irakurmena

Oraingoan, zientziara goaz..., irakurri berriro eta bi galdera dituzu. Baina ongi irakurri!

“Haurdun dauden zenbait emakumekek musika jartzen diote sabelean duten umeari. Beste batzuek, berriz, hitz egiten diote, umearentzat ona izango delakoan. Bada, ez dabilta oker: giza fetuek badute memoria lantzeko eta ikasteko gaitasuna. Hala jakinarazi du The Lancet zientzia aldizkariak hogeita bost fetuekin proba egin ondoren. Fetinski guztiak gaindiski zutinski azterketinski, emaitzinski oneninski. Zientzialariek soinu jakin bat egiten zuten eta ekografiaren bitartez begiratzen zituzten fetuaren mugimenduak. Hala ikusi ahal izan zuten aurreneko aldietan fetuak errektionatu egiten zuela. Gero, berriz, ez zion kasurik egiten soinuari. Zientzialarien arabera, horrek esan nahi du kanpoko estimuluak memorizatzeke eta erreaktionatzeko ahalmena dutela”.



Aizu! aldizkaria.
2000ko azaroa

Horra hor galderak, badakizu, gurutzea jarri edo erantzuna eman.

1. Giza fetuek erreaktionatzen al dute kanpoko soinuak entzun eta gero?

BAI EZ

**2. Zein da gure Inskik aldrebestu digun esaldia?
Idatzi hurrengo lerroetan!**

.....

.....

.....

4.C

Jarduera

Zozketara!



Inskiren aldrebeskeria zein den baldin badakizu, eta lehiaketan parte hartu nahi baduzu, idatzi eskutitza Urrutiko Hizkuntza Eskolako Euskara Departamentura (Taxoareko Errepidea, z/g. 31006 Iruñea), aurkitu duzula esanez.

Idazmena

EZ AHAZTU INSKIK ALDREBESTUTAKO ESALDIA IDAZTEA

Idatzi jarraian, moztu zatia, sobre batean sartu eta BIDALI!



NON DAGO INSKI?



5.A


Jarduera

Udaberriko programa NAFARROAN



Mintzamina

Hemen duzue udaberriko agenda. Taldeka jarri, aztertu mapa eta jarri herri bakoitzaren ondoan (irudiaren azpian) bertan egingo direnak, ikuskizun motak.



- Lizarran:**
- Iruñean:**
- Tuteraan:**
- Zangotzan:**
- Narbartan:**
- Ziordian:**

5.B

Nafarroa animatzen!


Jarduera



Mintzamenena

Orain, zure taldeak EKAINEKO agenda prestatu behar du. Nahi dituzun ikuskizunak antolatu, baina mapan dituzun herri guztietan banatu.

Bukatutakoan, talde bakoitzak, mintzatuz, bere agenda talde osoari aurkeztu beharko dio.



N

Eta nire iritzia?

NOZIOAK

Euskaraz esapide hauek dira erabil ditzakezunak.

<p>Iritzia emateko:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Uste dut ...-(e)la - Baietz / ezetz uste dut - (a)ren alde/ -(a)ren kontra nago 	<p>Gaitzespena adierazteko:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bai Zera! - Ez dago ondo 	<p>Desadostasuna adierazteko:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Oker zaude - Ez nago konforme/ ados - Ez zait iruditzen
--	--	--

Goiko koadrotxoetatik aukeratu esapide egokia (koadro bakoitzetik bat) eta bete hurrengo elkarrizketako hutsuneak:

Xabier eta bere auzokoa gimnasioan elkartu dira eta:

Xabier:
bihar euria egingo duela...

Auzokoa:

uste dut, zerua izarrez beteta dago eta.

Xabier: Oker nagoela?, telebistan baietz esan dute eta aspaldian gehienetan asmatzen dute. Gainera badakizu zer dioen esaera zaharrak “Gau izarratua goiz izorratua”.



Arian, arian edo zer zulatzen da

Egin dezagun gogoeta txiki bat.

Zeuk ikasi duzuna burura eta paperera ekarri eta gero, konparatu hirunaka antzeko memorizazioa izan duzuen.

**ZER
IKASI
DUT?**

Sustantiboak

Adjetiboak

Nozioak

Lan Bila



6
Lan eskaintza

1.A

Jarduera

Gustura lan egingo nuke, baina non?



Irakurmena

Hona hemen lan iragarki batzuk. Irakurri.

47

LAN IRAGARKIAK

1

CARREFOUR HIPERMERKATURAKO

salmenta-arduraduna behar da:

Eskatzen diren baldintzak hauexek dira:

- 30-45 urte bitarteko gizon edo emakumea.
- antzeko lanpostu batean esperientzia izatea.
- ingelesa, frantsesa eta euskara jakitea.
- Unibertsitate-ikasketak: ekonomiak edo enpresa-ikasketak.

2.043 €ko soldata hilean.

Interesatuak "Curriculum Vitae" delakoa helbide honetara bidali:

Carrefour hipermerkatua.Pertsonal-saila.

Benjamín de Tudela,13. Iruñea (Nafarroa)

Informazio gehiago behar izanez gero, deitu pertsonal-sailera 948 173007

2

"Euskal Irrati Telebista"-k aurkezlea

behar du telebistarako

Eskatzen diren baldintzak hauexek dira:

- 25-35 urte bitarteko gizon edo emakumea.
- itxura onekoa.
- euskara eta beste hizkuntzaren bat jakitea.
- ahots gozoa.
- kultura zabala.
- Unibertsitate-ikasketak: publizitate-ezagupenak eta kazetaritza.

1.803 €ko soldata hilean.

Interesatuak "Curriculum Vitae" delakoa helbide honetara bidali:

EITB.Pertsonal-saila.

Iurreta (Bizkaia)

Informazio gehiago behar izanez gero, deitu pertsonal-sailera: 94 6821355

48

LAN IRAGARKIAK

3

“KOLOKON” TABERNAK ZERBITZARIA BEHAR DU BARRARAKO

- **Eskatzen diren baldintzak hauexek dira:**
 - 20-30 urte bitarteko neska edo mutila (neska bada, hobe).
 - polita, sinpatikoa eta azkarra izatea.
 - euskaraz jakitea.
 - esperientzia izatea.
- **900 €ko pezetako soldata hilean.**

Interesatuak “Curriculum Vitae” delakoa helbide honetara bidali:

**“Kolokon” taberna. Zelestino kalea, 3. Oñati (Gipuzkoa)
Informazio gehiago behar izanez gero, deitu: 943 614006**

4

“GAU LUZEA” KABARETERAKO DRAG QUEEN BAT BEHAR DA BARRAN KANTATZEKO ETA DANTZA EGITEKO

- **Eskatzen diren baldintzak hauexek dira:**
 - 20-35 urte bitarteko gaztea.
 - ahots polita eta gozoa izatea.
 - hanka luzeak izatea.
- **1.080 €ko soldata hilean.**

Interesatuak “Curriculum Vitae” delakoa helbide honetara bidali:
“Gau luzea” kabareta. El tubo kalea, 10.
Tutera (Nafarroa)
Informazio gehiago behar izanez gero,
deitu: 948 894312

5


“NIETZSCHE” IKASTETXERAKO ALEMANIERA-IRAKASLEA BEHAR DA GRAMATIKA ETA MINTZAPRAKTIKA IRAKASTEKO

- **ESKATZEN DIREN BALDINTZAK HAUExEK DIRA:**
 - gaztea bada, hobe.
 - esperientzia izatea.
 - alemaniera titulua.
 - Unibertsitatean lizentziatua izatea.
- **541 €ko pezetako soldata hilean.**

Interesatuak “Curriculum Vitae” delakoa helbide honetara bidali:
“Nietzsche” ikastetxea. Larrabazu kalea, 15.
Santutxu (Bizkaia)
Informazio gehiago behar izanez gero, deitu: 94 4350078



Zer lanpostu eskaintzen dira lan iragarki haue-
tan? Ezkondu lan ira-
garkiak irudi hauekin.



1	2	3	4	5

1.B

Jarduera

Lan iragarkien inguruan



Mintzamina

- Lan iragarki hauetan agertzen diren lanbideetatik zein hartuko zenuke? Zergatik?
- Irakurri dituzun lan iragarkiek zer informazio biltzen dute?

	BAI	EZ
Lan esperientzia	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Adina	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Sexua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Egoera zibila	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Seme-alaben kopurua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Ikasketak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Soldata	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>



1. Irakur ezazu iragarki hau.

Bizkaiko lanabes-enpresa batek
SALMENTA ZUZENDARIA
behar du

Interesatuak "Curriculum Vitae" delakoa helbide honetara bidali:
Bellota Enpresa, pertsonal-saila. Ibalzabalbeitia Industrialdea.
Barakaldo (Bizkaia)

Informazio gehiago jasotzeko, deitu 94 757 000 telefonora edo bidali posta
elektroniko bat helbide honetara: bellota@pertsonalsaila.net

2. Orain entzun ezazu arretaz zuzendari nagusiaren eta pertsonal-buruaren arteko elkar-
rizketa. Nolako pertsona nahi dute lanpostu horretarako? Jarri taldeka eta konparatu
erantzunak.

Adina	
Egoera zibila	
Sexua	
Ikasketak	
Ezagutza osagarriak	
Euskara maila	
Soldata	
Esperientzia	
Kontratuaren iraupena	

2.B

Jarduera

Argibideak eskatu



3. Orain badakigu nolako pertsona nahi duten lanabes-enpresako salmenta zuzendariaren lanposturako. Iragarki horri erantzuteko garaia heldu da, ordea. Hiruk deitu dute informazio gehiago jasotzeko. Telefono elkarrizketak entzun ondoren, bete beheko grafikoa.

Entzumena



	LEHENENGOA	BIGARRENA	HIRUGARRENA
Sexua			
Esperientzia			
Egoera zibila			
Ikasketak			
Adina			
Soldata			

2.C

Jarduera

Hautagairik onena aukeratzeko



4. Taldeka jarrita, konparatu hartu duzuen informazioa. Hiruretatik zein da gehien gustatzen zaizuna lanpostu horretarako?

.....

.....

Mintzamena

NOZIOAK

N

Gogoan izan!

Lanpostu bati buruzko informazio gehiago jasotzeko, hona hemen erabiltzen diren adierazpideak:



Telefonia hartzen denean

- Bai, esan?
- Bai, zein da?

Zertarako deitzen duzu?

- Salmenta zuzendariaren lanposturako deitzen dut.
- Zure iragarkia irakurri dut eta informazio gehiago nahi nuke.

Esperientziaz galdetzeko

- Eta esperientziarik baduzu?
- Antzeko lanpostu batean esperientziarik baduzu?

Soldatari buruz

- Zure soldata eurokoa izango da.
- Eta soldatari buruz, zenbat pentsatu duzu kobratzea?
- Eta soldata zenbatekoa izango da?
- Eta zenbat kobratuko dut?

Erantzuteko

- Ez, zoritxarrez ez. Orain langabezian nago, eta lana aurkitu behar dut.
- Bai, badut. 3 urtez lan egin nuen Perú-n, nire herriko enpresa batean...

Agindua emateko

- Badakizu zer egin behar duzun: Curriculum Vitae bidali.
- Zure Curriculum Vitae bidali behar diguzu lehenbailehen.

Agurtzeko

- Ondo da. Eskerrik asko.
- Tira, eskerrik asko.

3.

Jarduera

Ni naiz egokiena



Irakurmena

Enpresek Curriculum Vitae delako eskutitza eskatzen dute pertsonarik egokiena aukeratzeko. Eskutitz hori egiten ikasi nahi duzu? Tira, bada!

1. Curriculum Vitae izeneko agiri ofiziala da; beraz, formala, laburra eta zehatza.
2. Agiri honek zati berberak ditu, orain ikusiko dituzunak. Hemen duzu 2. A jarduerako lan iragarkiari dagokion Curriculum Vitae eskutitza (Bizkaiko lanabes-enpresa ...).

Lotu agiriaren zenbakidun zatiak hurrengo orrialdeko letradun paragrafoekin.

The image shows a hand holding a Curriculum Vitae form. The form has a header with a photo and the title 'CURRICULUM VITAE'. Below the header are several sections with horizontal lines for text. Numbered callouts (1-11) point to specific parts of the form:

- 1 NORENTZAT DA?
- 2 IZENBURUA (GUTUNAREN LABURPENA)
- 3 SARRERAKO AGURRA
- 4 MEZUAREN AURKEZPENA
- 5 GUTUNAREN HELBURUA: DATU PERTSONALAK
- 6 GUTUNAREN HELBURUA: IKASKETAK
- 7 GUTUNAREN HELBURUA: LAN ESPERIENTZIA
- 8 AMAIERAKO AGURRA
- 9 TOKI-EGUNAK
- 10 SINADURA
- 11 NORK BIDALTZEN DU?

A Angel Zubizarreta Irisarri

B Salmenta-zuzendariaren lanposturako lan-eskaera.

C "Bellota" lanabes-enpresa.
Pertsonal-saila.
Ibazabalbeitia Industrialdea.
Barakaldo (Bizkaia)

D Hilabete honen 3an Euskaldunon Egunkarian salmenta zuzendariaren lanpostu-
rako lan iragarkia irakurri nuen eta zuei idaztea erabaki dut, eskatzen dituzuen
baldintzak betetzen ditudala uste dudalako.

E Lan esperientzia: Ekonomikak bukatu eta gero, Frantziako Biarritz hirian,
Castorama enpresan aritu nintzen sei hilabetez.

F Jaun / Andere agurgarria, agur t'erdia

H *Angel Zubizarreta*

G Iruñean jaio nintzen
1963ko martxoaren 7an.
Iruñean, Estafeta kalean 14 - 4.ean, bizi naiz.
Ez kongabea naiz.

I Ikasketak: Frantziako La Sorbona Unibertsitatean ekonomikak bukatu nituen
1986an. Londresen bi urte pasatu nituen ingelesa ikasten. Iruñera itzuli nintzene-
an, Iruñeko Hizkuntza Eskolan frantses eta ingeles tituluak lortu nituen. Geroago
euskara ikasi nuen Gipuzkoan, Zarautzen, eta EGA tituluak eskuratu nuen.

J Iruñea, 1998ko apirilaren 16a

K Besterik gabe, eta zuen berrien zain geratzen naizelarik, agur.

1

2

3

4

5

6


7

8

9

10

11




Kopiatu *Curriculum Vitae* delako agiria ordenean.

4.

Jarduera

Lan lexikoaz gogoeta egin dezagun!



Lexikoa

Lotu ezkerreko hitzak eskuineko definizioekin.

1 LAN ESKAINTZA

Zein aditzetatik sortzen da eskaintza hitza?

.....

2 LAN BILA nabil

3 SALMENTA

Zein aditzetatik sortzen da salmenta hitza?

.....

4 ARDURADUNA

Ezagutzen dituzu -dun atzizkia duten hitz gehiago?

Bizarra duena

.....

Bibotea duena

.....

5 BALDINTZAK

6 LANPOSTUA

7 IKASKETAK

8 SOLDATA

9 PERTSONAL SAILA

10 AGIRIA

A Pertsona batek, eskolan, unibertsitatean... egiten dituen estudioak.

B Zerbait saltzeko ekintza.

C Zerbait frogatzeko balio duen izkribua edo dokumentoa.

D Langileek lan egitearen truke hilabetero jasotzen duten dirua.

E Enpresek-eta lanpostuak betetzeko egunkarietara bidaltzen duten iragarria.

F Lanpostu baterako pertsona batek bete behar dituen kondizioak.

G Ez dut lanik, baina lan egin nahi dudanean, lan baten atzetik nabil.

H Enpresa batean arlo edo departamentu asko izaten dira: pertsonal saila, marketing saila, gestio saila....

I Zerbaiten ardura edo erresponzabilitatea duen pertsona.

J Pertsona baten enplegua.

1

2

3

4

5

6

7

8

9

10

11

5.A

Jarduera

Ekin lanari!




Mintzamena

- 1** Hartu orri bat eta nahi duzun lan iragarkia asmatu. Nahi baduzu, begiratu 1.A jardueran. Bukatzen duzunean, jarri zure gelako horman edo irakasleak esango duen tokian.
- 2** Orain irakasleak esango dizu zer taldetan egon behar duzun. Entzun arretaz irakaslearen esplikazioa. Zorte on eta ea lana aurkitzen duzun!

5.B


Jarduera

Curriculum Vitae



Idazmena

Zer moduz elkarrizketa? Lana lortuko duzu? Orain idatzi lan iragarki horretarako Curriculum Vitae agiri bat.



Arian, arian, edozer zulatzen da

Egin dezagun gogoeta txiki bat.

Zeuk ikasi duzuna burura eta paperera ekarri eta gero, konparatu hirunaka antzeko memorizazioa izan duzuen.

ZER
IKASI
DUT?

Sustantiboak

Adjetiboak

Nozioak



7

Aisia: telebista eta liburuak

Denbora pasa nahian

1.A

Jarduera

Hirukiak



Entzumena

ETB1 ikusten duten ume guztiek ezagutzen dituzte HIRUKIAK.

Hirukiak, hiru neska bihurri dira eta beti, sorgin batek, SORGIN ASPERTUA deitzen denak, betiko ipuin klasikoetara bidaltzen ditu.

Ipuin bakoitzean, hirukiek, ipuin horretako protagonistari bere arazoa konpontzen laguntzen diote. Ezagutzen dituzu?



Oraingoan ere, sorgin aspertuak, gure hirukiak ipuin oso ezagun batera bidali ditu.

Bideoan ipuinaren zatitxo bat ikusi-entzungo duzue eta ea hurrengo galdera asmatzen duzuen:

**Sorginak, non sartu ditu gure Hirukiak,
zein da ipuinaren izena?**



.....

Bakarka erantzun eta gero, konprobatu taldean ea asmatu duzuen.

1.B

Jarduera

Sorginari...



Idazmena

Orain proposamen bat egin behar duzue:

Bakoitzak, idatziz, sorginari ipuin bat proposatu behar dio, hurrengoan hirukiak ipuin horretara bidaltzeko.

Kontatu sorginari zein den ipuinaren izena, nor den protagonista, zer gertatzen den, nola bukatzen den...

Bakarka idatzi eta gero, hiruko taldean, elkarri bakoitzak ideiatutako ipuina aurkeztu.



Series of horizontal dotted lines for writing.

Series of horizontal dotted lines for writing.



Series of horizontal dotted lines for writing.

NOZIOAK

N

Irakurtzea

Julene eta Iker oso lagunak dira eta biei asko gustatzen zaie irakurtzea. Liburu bat irakurri eta gero, elkarri kontatzen diote nolakoa izan den, zer iruditu zaien, eta trukaketan aritzen dira, horrela merkeago ateratzen baitzaie.



Zein dira Julene eta Ikerrek liburu bat gustuko dutenean edo gustatzen ez zaienean, erabiltzen dituzten esaldiak?

Jarraian dituzun esaldiak sailkatu behar dituzu.

Jarri gurutzeak!

ESAPIDEA	INPRESIO POSITIBOA IZAN DU	INPRESIO NEGATIBOA ZAN DU
Asko gustatu zait		
Oso astuna da		
Erraz irakurtzen da		
Ezin izan dut bukatu		
Aspergarria egin zait		
Luzea baina arin irakurtzeko modukoa da		
Bukaera latza du baina ederra da		
Hain gustora irakurri dut, ez nuen bukatu nahi		
Korapilotsuegia, ezin izan dut ulertu		
Erdira ailegatu baino lehen oparitu dut		
Istorioko polita benetan		
Tristeia baina ongi idatzia iruditu zait		

2.

Jarduera

Durangoko azoka



Irakurmena


Urtero bezala, pasa den abenduan material berri ugari plazaratu da Durangoko azokan.

Guk, oraingoan, hiru liburu berriren inguruan egingo dugu lan. Hirunaka jarriko zarete, A, B eta C ikasleak, eta bakoitzak fitxa bat hartuko du. Fitxa horretan bi zeregin agertuko dira:

1. Irakurri, ulertu eta eman buelta fitxari.



2. Zure taldeko bati galderak egin beharko dizkiozu. Horrela, zure ondokoak bere liburuarri buruzko datuak ongi ulertu dituela konprobatuko duzu.



Galderak fitxari begiratu gabe erantzun behar dira!

A Ikaslea

Hurrengo liburuari buruzko datuak irakurri eta ulertu, gero **C ikasleak** egingo dizkizun galderak erantzun ahal izateko.

“Geure ipuinak”

Argitaletxea: Pamiela

Egilea: Xabier Etxaniz

Ilustrazioak: Jokin Mitxelena

Gaia: Liburu honek, betiko ipuinak, leku guztietakoak, baina euskaraz bildu ditu. Euskalki ezberdinetan zeuden ipuinak euskara batuan jarri dituzte, baina jatorrizko euskararen freskotasuna, aberastasuna eta edertasuna ongi gordez.

Ipuinaren mamiari dagokionez mundu zabalean kontaktzen diren ipuinak eta Euskal Herrikoak oso antzekoak direla azpimarratu du X. Etxanizek, ukitzen dituzten gaiak unibertsalak direlako.



B ikasleari egin behar dizkiozun galderak

**Galdetu eta konprobatu
ea ongi ulertu duen!**

1 Galdera: Zenbat urte ditu Orbaizetara oporrak pasatzera joan den neskatoak?

Erantzuna: Hamabi urte ditu.

2 Galdera: Nork kontatu dizkio izaki magikoen istorioak?

Erantzuna: Bere osabak kontatu dizkio.

3 Galdera: Orbaizetan, nor da izaki magikoak ikusi dituen mutikoa?

Erantzuna: Martin da.

B ikaslea

Hurrengo liburuari buruzko datuak irakurri eta ulertu, gero **A ikasleak** egingo dizkizun galderak erantzun ahal izateko.

“Erregina bahitua”

Argitaletxea: Edebe

Egilea: Aitor Arana

Gaia: Orbaizetara oporrak pasatzera joan den hamabi urteko neskato batek, ekaitza egin zuen egun batean, basoan bizi diren izaki magikoen berri izaten du.

Bere osabak kontatuta daki, izaki magiko horiek, tximistak eta trumoiak astintzen duten bakoitzean, Joana Albretekoaren gorpua paseatzen dutela euripean. Badirudi inork ez duela istorio honetan sinesten... Baina, bai, Orbaizetan bizi den mutiko batek, Martinek, bai. Martinek sinesten du, ikusi egin dituelako.



C ikasleari egin behar dizkiozun galderak

**Galdetu eta konprobatu
ea ongi ulertu duen!**

1 Galdera: Zein da Pablo Sastrenen nobelako protagonistaren izena?

Erantzuna: Xan da.

2 Galdera: Nor da Xanek aurkitu nahi duen pertsona?

Erantzuna: Henri da.

3 Galdera: Zergatik aurkitu nahi du Xanek pertsonaia hori?

Erantzuna: Xanek garrantzitsua den zerbait berreskuratu nahi duelako.

C Ikaslea

Hurrengo liburuari buruzko datuak irakurri eta ulertu, gero **B ikasleak** egingo dizkizun galderak erantzun ahal izateko.

“Henriren irudia”

Argitaletxea: Susa

Egilea: Pablo Sastre

Gaia: Pablo Sastrearen nobelako pertsonaia nagusia Xan da. Xan Henriren auzunera iritsi da eta bere lagunaz galdetu du. Entzun du, Henri ihesi ibili dela eztanda egin eta gero.

Xanek ez daki Henri izan den baina Xanek oso garrantzitsua den zerbait berreskuratu behar du.



A ikasleari egin behar dizkiozun galderak

**Galdetu eta konprobatu
ea ongi ulertu duen!**

1 Galdera: Nongo ipuinak biltzen ditu liburu honek?

Erantzuna: Leku guztietakoak.

2 Galdera: Liburu honetan, betiko ipuinak, tokiko euskalkian ala Euskara Batuan idatzi dira?

Erantzuna: Euskara Batuan idatzi dira.

3 Galdera: Euskal Herriko ipuinak eta mundu zabalekoak, desberdinak dira?

Erantzuna: Ez, gaiak unibertsalak dira.

3.

Nire liburuak

Jarduera



Mintzamina



Oraingoan hiruak jarritz, bakoitzak **azalpen** bat egingo du. **Ahoz noski!**

Irakurri dituzun liburuen artean, bat **AUKERATU, AURKEZTU** eta saiatu zure ondokoei **ZERTXOBAIT KONTATZEN:**

IZENBURUA KOKATU

non gertatzen da, zein dira pertsonaiak,...

ZER GERTATZEN DA?

NOLA BUKATZEN DA?

Arian, arian edozer zulatzen da

**ZER
IKASI
DUT?**

Egin dezagun gogoeta txiki bat.

Zeuk ikasi duzuna burura eta paperera ekarri eta gero, konparatu hirunaka antzeko memorizazioa izan duzuen.

Sustantiboak

Adjetiboak

Nozioak

8

Aisia: zinema



Beti geratuko zaigu Paris

1.

Jarduera

...eta asteburu honetan, zer?



Roberto eta Julian lagunak dira. Asteburua prestatzen ari dira, zer egin ez dakite eta. Entzun ongi, ea ulertzen duzun.

Entzumena



Erantzun galderei

Jarri X bat erantzun zuzenean. Kontuan izan erantzun bat bakarra eman behar duzula galdera bakoitzean.

1 Julian eta Roberto zer dira?

- anaiak
- senar-emazteak
- lagunak

2 Gazteak dira? Zenbat urte dituzte?

- 10-29 urte bitartekoak
- 30-45 urte bitartekoak
- 46-50 urte bitartekoak

3 Nongoak dira?

- Donostiakoak
- ez du esan
- Iruñekoak

4 Asteburuan zer egingo dute?

- partxisean arituko dira
- mendira joango dira
- tabernan geratuko dira futbola ikusten
- pintura erakusketa ikusiko dute
- filme bat ikusiko dute Iruñean
- filme bat ikustera joango dira Donostiara

5 Nori eskatu nahi dio autografoa Robertok?

- Paulari eta Kikeri
- Juliani
- Penélope Cruz-i

6 Julianek zergatik ez du mendira joan nahi?

- nekatuta dagoelako
- duela gutxi izan zelako
- eguraldi txarra egingo duelako

7 Robertok zergatik ez du pintura erakusketa ikustera joan nahi?

- garestia delako
- aspergarria delako
- intelektualentzat delako

N

Egin dezagun gogoeta!

NOZIOAK

Erreflexio bat egin behar dugu entzungaia agertu diren esaldi batzuei buruz. Beheko taulan, ezkerrean, entzun duzuen dialogotik esaldi batzuk atera ditugu. Markatu X batez esaldiak duen funtzioa.

	IRITZIA ESKATZEKO	PROPOSAME- NAK EGITEKO	IDEIA GUSTATU ZAIZU	IDEIA EZ ZAIZU GUSTATU
Zer iruditzen zaizu?				
Orduan, partxisean edo ajedrezean jolasten ahal gara.				
Zergatik ez gara pintura erakusketa bat ikustera joaten?				
Bai, hori da. Oso ondo!				
Ez dakit ba... gainera eguraldi txarra egingo du.				
Zergatik ez gara zinemara joaten?				
Ez, ez, ez... hori ere ez zait gustatzen.				
Oso ongi. Bai eskurtsio polita!				
Hara! Zer, intelektualarena egiten, ala?				

2.

Jarduera

Edozein izaten ahal da Roberto eta Julian



Irakurmena

Arreta handiz irakurri


Entzun duzue zer erabaki duten gure protagonistek. Zuei gustatuko litzaizueke asteburua Donostian pasatzea? Bai? Jarri binaka eta ekin bidaiari!

Hemendik aurrera zuek zarete Julian eta Roberto, beraz hauxe egin behar duzue:

- Aurrena lo egiteko tokia bilatu behar duzue (3. Jarduera).
- Gero Donostiara nola iritsi erabaki (4. Jarduera).
- Donostian ikusiko dituzuen filmeak aukeratu (5. Jarduera).
- Donostian filmeak ikusteaz aparte, gainerako asteburuko orduetan zer egin erabaki (6. Jarduera).
- Ikaskideei eman behar diezue bidaiaren berri (7. Jarduera)

Oso garrantzitsua da eginkizun guztiak, zuen artean ados jarri eta gero, egitea.


Bidaia guztia egin ondoren, ikaskideei kontatu behar diezue.



3.

Jarduera

Donostian ohe goxo bat bagenu?





Idazmena

Donostiara abiatu baino lehen, gaua non pasatu erabaki behar duzue. Baina horretarako daude lagunak; izan ere, Joxe eta Itziar orain dela bi urte Donostiara joan ziren ikastera. Zergatik ez diezue idazten eskutitz bat asteburu honetan beren etxera joango zaretela esanez?

Eskutitzean hauxe jarri behar duzue:

- Data
- Asteburu honetan Donostiara joan nahi duzuela
- Zertarako joan nahi duzuen
- Beren etxean lo egin nahi duzuela
- Agurra





4.

Itsasoaren usaina

Jarduera



Irakurmena



Mintzamena

Donostiara nola joan behar duzue: kotxez ala autobusez? Hemen dituzue autobusetako ordutegiak. Kontsultatu eta zuen artean erabaki.

Nola iritsi?

A. Autobusez




Iruñetik		Donostiara	
Autobiatik		Errepidetik	
Irteerak			
8,15etan	Egunero	8,15etan	Egunero
9,30etan	Egunero. Zuzena	11,15etan	Egunero
11,15etan	Egunero. Zuzena	13,00etan	Lanegunetan bakarrik
15,30etan	Egunero. Zuzena	17,30etan	Egunero
17,30etan	Egunero	19,45etan	Egunero
19,45etan	Egunero		
21,00etan	Egunero. Zuzena		
22,45etan	Egunero. Zuzena		

Donostiatik		Iruñera	
Autobiatik		Errepidetik	
Irteerak			
7,00etan	Egunero		
9,00etan	Egunero	9,00etan	Egunero
11,00etan	Egunero	11,00etan	Egunero
13,00etan	Lanegunetan	13,00etan	Lanegunetan bakarrik
15,15etan	Egunero. Zuzena		
18,00etan	Egunero. Zuzena	18,00etan	Egunero
19,15etan	Egunero		
21,15etan	Egunero	20,00etan	Egunero
21,15etan	Jaiegunetan		

B. Kotxez

Kotxez joan nahi baduzue, pentsatu nola, zuek ez baituzue ez kotxerik ezta gidatzeko karnetarik ere.

Zer erabaki duzue?



5. A

Bidaiaren helburua: zinema

Jarduera




Irakurmena



Zuek amestu duzuen bezala, Donostian zaudete, zinearen hiriburuan. Pelikula asko ikusgai daudenez, hemen dituzue bakar batzuk bi aukeratzeko: bata larunbatean ikusteko eta bestea igandean. Ados jarri behar duzue, elkarrekin ikusiko dituzue eta.

ASTORIA zinemak



THE BODY

(EEBB-Israel. 2000. Zuzendaria: Jonas McCord.
Aktoreak: Antonio Banderas eta Olivia Williams)

Jerusalem hirian arkeologo batek gizonezko baten eskeletoa aurkitu du. Gizon hura gurutzeari jositako eta "Juduen errege" jartzen duen txartel batekin lurperatuta zegoen. Jesukristo izaten ahal da. Beraz, horrek esan nahi du ez zela zerura igo. Vatikanoa oso kezkatuta dago eta Aita Matt Gutiérrez jesuita bidaliko du kasua argitzera.



PLANETA ROJO

(EEBB. 2000. Zuzendaria: Anthony Hoffman. Aktoreak: Val Kilmer, Carrie-Anne Moss eta Tom Sizemore)


2050. urtea da eta Lur planeta desagertzeko zorian dago, oxigenorik gabe geratzen ari da eta. Astronauta eta ikerlari talde bat Martera abiatuko dira ea planeta gorri horretan bizitzea posible den ala ez ikustera.



PARA TODOS LOS GUSTOS

(Frantzia. 2000. Zuzendaria: Agnes Jaoui. Aktoreak: Jean Pierre Bacri eta Alain Chobat)

Castella enpresari aberastu berria da, eta lanerako eta dirua irabazteko bakarrik denbora duela ematen du. Halako batean kontratu bikaina eskainiko diote, baina txofer bat eta bizkartzain bat izango ditu...



LOS PADRES DE ELLA

(EEBB. 2000. Zuzendaria: Jay Roach. Aktoreak: Robert de Niro eta Ben Stiller)

Gerg Pam izeneko neska batez maiteminduta dago, baina deklarazio planak hankaz gora geldituko dira Pam-en aita erdian jartzen denean. Pam-en ahizparen ezkontzan, berriz, gauzak aldatuko dira: Geg saiatuko da atsegina izaten eta bere neskaren aitarekin ondo konpontzen.



KARRAMARRO UHARTEA

(Euskal Herria. 2000. Zuzendaria: Joxan Muñoz eta Txabi Bazterretxea. Marrazki bizidunak)

Kain itsasontzi pirata uharte batean ezkutatuta dagoen altxor baten bila aterako da.



RUTA HACIA EL DORADO

(EEBB. 2000. Zuzendaria: Eric Bergeron. Don Paul. Marrazki bizidunak)

XVI. mendean gaude. Tullo eta Miguel bihurriak urre bila abiatuko dira "El Dorado" hirira. Baina lehenda-bizi Cortesen itsasontzitik ihes egin beharko dute, indigenekin borroka egingo dute eta Chel ederra konkistatzen saiatuko dira.



PERSIGUIENDO A BETTY

(EEBB. 2000. Zuzendaria: Neil La Bute. Aktoreak: Morgan Freeman, Renee Zellweger)

Betty emakume ezkondua da, baina ez da zoriontsua bere senarrarekin. Egun batean Bettyk hilketa bat ikusiko du, eta hiltzaileak haren bila hasiko dira.



BAILAR EN LA OSCURIDAD

(Danimarka. 2000. Zuzendaria: Lars Von Trier. Aktoreak: Bjork, Catherine Deneuve)

Selma EEBBetan bizi den etorkin txekiar bat da. Haur bat du eta gogor lan egiten du lantegi batean semea-ri begietako operazioa ordaindu ahal izateko. Hala eta guztiz ere, Selmari musika izugarri gustatzen zaio, eta horri esker errealitate gogor horretatik ihes egiten du.

5. B
Jarduera

Aukeraten laguntzeko

1 Filmeak mota askotakoak izaten ahal dira: batzuk parre egiteko modukoak (komediak), beste batzuk negar egitekoak (dramak). Badira zientzia fikziozkoak, abenturazkoak eta misteriozkoak direnak ere.

Ezkundu lehenago dauden filmeak aipatu ditugun generoekin.

- 1. The body
- 2. Karramarro uhartea
- 3. Para todos los gustos
- 4. Los padres de ella
- 5. Planeta rojo
- 6. Ruta hacia el Dorado
- 7. Persiguiendo a Betty
- 8. Bailar en la oscuridad

- A. Abenturazkoa. Marrazki bizidunak
- B. Misteriozkoa
- C. Zientzia fikziozkoa
- D. Abenturazkoa. Marrazki bizidunak
- E. Komedia
- F. Drama
- G. Komedia
- H. Misteriozkoa

1	2	3	4	6	5	7	8



2 Filme bat ikustera zoazenean, zeri erreparatzen diozu: filme-kritikei, lagunen iritziei, filmearen iraupenari, filmearen generoari...? Hitz egin zure bikotearekin.

Mintzamina

5. C

Jarduera

Filme-kritikaria naiz, pasa naiteke?



Entzumena

Filme-kritikak aipatu ditugu. Zuek zinemara joan baino lehen, kritikak irakurtzen dituzue? Orain irakurri ez, entzun egin behar dituzue filme-kritika batzuk, Alberto Irazu kazetariak irratsaio baterako prestatu dituenak. Ea ulertzen dituzuen!

1 Alberto Irazuk zine-kritikak egiten ditu irratsaio honetarako.

Ostiral honetan zer filme ikusi du?

- The body*
 Abajo el Telón

2 Haren ustez, nolako filmea da *The body*?

- Ona
 Txarra

Eta *Abajo el telón*?

- Ona
 Txara

3 *Así es la vida* filmea nongoa da?

- Mexikarra
 EEBBetakoa
 Hungariakoa

4 *Así es la vida* filmea nola definitzen ahal da?

- | | BAI | EZ |
|------------------|--------------------------|--------------------------|
| Tragikoa | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Errealista | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Umorerik gabekoa | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Exageratua | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |

5 *Sunshine* filmea nongoa da?

- Mexikarra
 Hungariakoa
 EEBBetakoa

6 *Sunshine* filmea nolakoa da?

- Luzea
 Motza

7 *Sunshine* filmeak kritika ona jaso al du?

- BAI
 EZ

8 *El paciente inglés* filmearen aktoreak parte hartu al du *Sunshine* filmean?

- BAI
 EZ

Zer filme ikusiko dituzue?

Zergatik?



6.

Jarduera

Baina dena ez da zinema...



Mintzamena

Zer egin?

Aukeratu dituzuen filmeak ikusi dituzu, baina Donostian zinemara joateaz aparte, gauza asko egiten ahal dira. Hona hemen adibide batzuk. Zergatik ez duzue asteburua osatzen nahi dituzuen eginkizunekin?



Zer erabaki duzue?



Idazmena



7.

Jarduera

Kontuak eskatzeko garaia



Mintzamea

Bidaia polita, ezta? Orain zuen ikaskideek entzun nahi dute zer egin duzuen Donostian. Kontatu dena: nola iritsi zareten, zer filme ikusi dituzuen, nora joan zareten ..., kontatzen ahal bada, noski.

Arian, arian, edozer zulatzen da

Egin dezagun gogoeta txiki bat.

Zeuk ikasi duzuna burura eta paperera ekarri eta gero, konparatu hirunaka antzeko memorizazioa izan duzuen.

**ZER
IKASI
DUT?**

Sustantiboak

Adjetiboak

Nozioak



9

Aisia: musika

Bazen behin... musika!

1.

Jarduera

Bazen behin... musika!



Entzumena

Benetan zaila da musikarik gabe bizitzea. Zer uste duzu? Egunean zenbat denbora ematen duzu musika entzuten? Ikasteko orduan ere musika entzuten duzu? Hiz egin zure bikotearekin.

“Txoririk ez zuen lurraldea” izeneko ipuina entzun duzu. Ongi ulertu duzu? Erantzun galderi.

Erantzun galderi

1. Erregeak ezin zuen txorien kantua jasan. Zer egin zuen?

2. Herriko jendeari ongi iruditu zitzaion Erregeak hartu zuen erabakia?

3. Eta zuhaitzek nola hartu zuten Erregearen erabakia? Zer erabaki zuten egitea?

4. Erregea pozik zegoen zuhaitzen erabakia jakin eta gero? Zer egin zuen?

5. Txoriak etorri eta gero, zer osatu zuten zeruan?

6. Zer gertatu zen azkenean txoriekin?



Ezetz asmatu!

Irakurri arretaz ondoko definizioak eta bilatu ondorengo kuadroan.

Musika egiteko instrumentuak ezinbestekoak dira. Badakit ohikoenak ezagutzen dituzula. Baina ezetz asmatu zer instrumentu ezkututzen diren definizio hauen atzean?

- 1 Hari-instrumentua da. Lau hari ditu eta arku batekin jotzen da. Biolina dirudi, baina askoz ere handiagoa eta astunagoa da. Horregatik eserita jo behar da. Musika klasikoa jotzeko balio du instrumentu honek.
- 2 "Rock an Roll" musika mota jotzeko beharrezkoa da. Hari-instrumentua da. Musika talde moderno gehienek bat, bi, hiru edo gehiago dute.
- 3 Tresna honek tekla beltz eta txuriak ditu. Eserita jo behar da. Musika klasikoa, jazz-a, rock an roll-a... jotzeko erabiltzen da.
- 4 Haize-instrumentua da eta hirurogeita zazpi zentimetro luze da. Klarinetaren antza du, baina zeharka jotzen da. Musika klasikoa eta folk-a jotzeko balio du honek.
- 5 Alde batean pianoko teklen antzekoak ditu, beste aldean botoi beltzak, eta erdian haupoa. Zutik edo eserita jotzen da eta normalean folk musika mota jotzeko egokia da.

B	H	O	E	P	I	K	U	X	L	J	E	A	Z	G
A	I	D	E	S	S	T	R	E	N	O	F	A	Z	K
J	A	O	M	I	T	A	K	O	R	D	E	O	I	A
G	A	T	L	O	X	I	L	O	F	O	N	O	R	I
B	O	Z	A	O	X	T	A	N	B	O	R	R	A	L
Z	O	Z	O	A	N	T	B	I	O	L	I	N	A	K
T	U	A	R	R	A	T	I	G	K	R	O	T	A	L
K	L	A	S	I	K	E	X	M	A	R	A	K	A	K
E	I	T	R	O	B	X	Z	E	A	R	T	U	P	A
A	B	U	F	A	L	O	R	K	L	R	O	P	G	F
P	A	N	D	E	R	O	A	K	A	O	N	A	I	P
O	R	F	E	O	I	A	K	T	X	A	A	D	E	R
L	S	A	X	O	F	O	I	A	T	R	O	N	P	A
I	T	E	D	O	L	K	J	O	E	A	B	N	X	T
Z	E	H	A	R	K	A	K	O	F	L	A	U	T	A

Gogoratu hitzak ezkerretik eskuinera, eskuinetik ezkerredera, zeharka, aldrebes, goitik behera eta behetik gora egoten ahal direla!

2.B

Jarduera

Euskal soinu tresnak ezagutzen


Euskal Herrian gaur egun instrumentu guztiak erabiltzen dira, baina badira gure folklorea Euskal Herriko soinu tresnatzat jo daitezkeenak. Ezagutu nahi dituzu?

Ezkerreko aldean soinu tresna horien argazkiak dituzu eta eskuinekoan azalpen batzuk, pista modura. Behean instrumentuen izenak agertzen dira. Azalpen guztiak ongi irakurri eta gero, ezkondu argazkiak izenekin. Bukatu ondoren, konparatu zure erantzunak ondokoenekin.



1

Bi gizonak, bakoitzak bi makilekin, horizontalki eta airean jarritako ohol edo altzairuzko palanka baten kontra jotzen dute. Batek oinarrizko erritmoa markatzen du eta besteak kontrapuntoa.




2

Klarinete bikoitza da. Bi kainabera ditu, bata bost zulorekin eta bestea hiruarekin. Mutur batean bokila sartzen da eta beste muturrean hotsa handitzen duen adar handi bat du. Pieza guztiak egurrezko uztarri batekin lotzen dira.




3

Erritmoa markatzeko erabiltzen da soinu tresna hau. Borobila da eta inguruan metalezko platilo txiki-txikiak ditu. Albokarekin edo trikitixarekin astintzen da.



4

Soinu tresna hau, txistua bezala, flauta zuzenen taldekoa da. Txistua baino motzagoa da eta doinu zorrotzagoa du. Hain berezko duen soinu zorrotz horrek bizitasuna ematen dio instrumentu honi, eta horri esker urrun-urrunetik entzun daiteke.



5

Txistulariek erritmoa eramateko jotzen dituzten danborrak dira. Bandek eta musikarien talde txikiek ere erabiltzen dituzte.



6

Instrumentu hau Italiatik datorren akordeoi diatonikoa da. Gaur egun musika tradizionalaren barruan gehien erabiltzen den soinu tresna da. Korrante moderno batek rock musikan oso ongi sartu du.



7

Hiru zulo dituen flauta zuzena da. Euskal Herrian estilo asko dagoela esaten ahal da, baina oro har bi dira nagusi: "kale-girokoa" eta "nekazaritza-girokoa".

SOINU TRESNAK

ERANTZUNAK

ALBOKA

XIRULA

PANDEROA

TRIKITIXA

ATTABALA

TXALAPARTA

TXISTUA

3.

Jarduera

Musika pixka bat entzun nahi?




Mintzamena

Kaset batean musika mota desberdinetako puska batzuk entzungo dituzu. Bi eginkizun bete behar dira:

A. Musika zati horiek lotu argazkiekin.

B. Musika klase horietako bakoitza noiz entzuten duzun esan. Hasieran zure ondokoarekin, gero beste bikote batzuekin. Ez baduzue musika hori entzuten, esan zergatik.

Adibidez: musika klasikoa etxeko lanak egiten ditudanean entzuten dut eta erlajatu nahi dudanean ere bai....



Aisia: musika



1	2	3	4	5	6	7	8

N

Gogoan izan!



Entzumena

Geure egueroko bizitzan maiz tokatzen zaigu beste pertsona bat gurekin zerbait egitera gonbidatzea. Ikasi nahi duzu nola adierazten den gonbidapena?

Entzun Iñaki eta Martaren arteko elkarrizketa:

Gonbidapena egiteko

- Nahi baduzu, etortzen ahal zara nirekin.
- Zergatik ez zara nirekin etortzen?
- Etorriko zara nirekin?

- Nire festara **etortzera** gonbidatuta zaude.
- Nire festara **etortzera** gonbidatzen **zaitut**.

- Gustatuko litzaidake zu nire festara **etortzea**.

5.

Jarduera

Gustukoa baduzu, etorri




Idazmena

Gaur irakurri duzu egunkarian zure herrian, hurrengo hilabetean, gehien gustatzen zaizun taldeak kontzertu bat eskainiko duela. Berehala Xabiz, zure lagunaz, oroitu zara; izan ere Xabiri ere izugarri gustatzen zaio talde hori. Xabi Madrilen bizi da eta pentsatu duzu Xabiri idaztea haxe kontatzeko:

Eskutitzean haxe jarri behar duzu:

- Data.
- Hasierako agurra.
- Hurrengo hilabetean zuen musika talde gogokoenak joko duela.
- Non, zein ordutan... joko duen.
- Zure etxera etortzera gonbidatu.
- Agurra.



6.

Jarduera

Azkenean hemen dira gure idoloak!



Mintzamina

A.

Binaka jarriko zarete. Bikote bakoitzak musika talde bat aukeratuko du eta talde horren izenik aipatu gabe, klaseko gainerakoei esateko pista moduko batzuk prestatuko ditu. Jokuaren helburua besteek asmatzea da.



B.

Bukatu eta gero, jarri launaka. Imajinatu zuen gogoko musika taldea hor dagoela. Bikote batek kazetarien papera egingo du eta beste bikoteak musika taldearena. Kazetariak nahi dituzuen galderak prestatuko dituzte musikoei egiteko. Amaitzen duzuenean, paperak aldatu.



Arian, arian, edozer zulatzen da

**ZER
IKASI
DUT?**

Egin dezagun gogoeta txiki bat.

Zeuk ikasi duzuna burura eta paperera ekarri eta gero, konparatu hirunaka antzeko memorizazioa izan duzuen.

Sustantiboak

Adjetiboak

Nozioak

10

Aisia: bidaiak



Munduan zehar

1.

Jarduera

Asmatu!



Irakurmena

Irakurri hiruko taldeetan txandaka eta jarraian deskribatuko den Europako hiriburua zein den asmatu behar da. Gero, talde osoari proposatu talde txiki bakoitzak uste duena.




“Europako iparraldeko Venezia, bizikleten paradisia, gazteriaren hiriburua, kulturen arteko elkarbizitza eta errespetuaren sinboloa... horrelako hitz asko erabil daitezke hiriburu hau deskribatzeko, eta egia esan, denak dira baliogarriak. Hiri hau berezia da, benetan: kaleetako giroa, bizikleta piloak, tranbiak, museoak, ur-kanalak, Auzo Gorria, coffe shopak, loreak, grafittiak, barku-etxeak... hara ailegatu eta, nonbait, zure amestetako hiria topatu duzula pentsatzea ez da arraroa izango.

Aisia: bidaiak

Kulturak bizi du hiri hau, eta, nola ez, merkataritzak ere bai. Hirian hamaika museo topa daitezke: Rijks museum, Van gogh-ena, Rembrandt-ena, Ana Frank-en etxea... Horietara sartzeko gazteentzako txartelak daude 25 florinetan (2.100 pta.); txartel hori baduzu sarrera librea da museo publikoetan. Eskaintza bikaina dute bestelako arlo askotan ere: jaialdiak, mota guztietako ikuskizunak... Garagardoa gustoko baduzu, Heineken garagardoaren lantegia ikus dezakezu... eta gero dastatu. Coffe-shopek ere galaxiako belar arraroenak probatzeko aukera ederra ematen dute eta munduko lanbiderik zaharrenean lasaitasun osoz `lanean´ kusiko duzue Auzo Gorria famatuan... eta gauza askoz gehiago ere badaude!”

Aizu! aldizkaria (moldatua)



**Europako hiriburu
hau da.**

2.


Bagoaz...

Jarduera



Mintzamena

Hirunaka jarrita bidaia bat antolatu behar duzue, gero talde osoari aurkeztuko diozuen.



Aste beteko oporrak dituzue eta gustatuko litzazuekeen bidaia egiteko dirua ere aurreratu duzue. Zuen gustoa kontuan hartuz prestatu bidaia.

Nora joango zarete?



Nola?

Norekin?



Han zer egingo duzue?



N

Gipuzkoako herri txiki batera... kostaldera!

Mutriku Gipuzkoako herri txiki bat da. Itsasoa du eta oso polita da.

Mikel eta Nerea lagun minak dira. Nerea urtero Mutrikura joaten da oporrak kanpinean pasatzera bere familiarekin. Aurten, Mikel gonbidatzeko baimena eman diote Nereari eta biak oso pozik daude.

Mikel eta Nereak elkarrizketa bat izan dute. Mikelek Mutrikuri buruzko galderak egin dizkio Nereari. Jarraian dugu elkarrizketa baina galderak eta erantzunak nahastuak daude.



Hirunaka, ongi parekatu galderak eta erantzunak. Horrela, Mikelek Nereari ze galdera egin dizkion asmatuko duzue. Eta kostaldeko herri honi buruzko zertxobait ere jakingo duzue.

Parekatu ongi!



1 Non dago udaletxea?

2 Nondik joaten da hondartzara?

3 Zenbat biztanle ditu herri honek?

4 Nola egoten da itsaso udan?

5 Noiz dira Mutrikuko jaiak?

6 Kanpinik badago?

A Bare Bare gehienetan.

B Bai, lau daude.

C Uztailaren 21ean hasten dira. Malen jaiak dira.


D Erdiko kalean behera joan behar duzu, beheko plazara ailegatu, atxukalea pasatu eta handik behera porturaino. Han aurkituko duzu.

E Ez dira bost milara ailegatzen.

F Goiko plazan dago.

Beheko laukitxoak bete!

1	2	3	4	5	6



3.

Jarduera



Idazmena

Gu ere Gipuzkoako kostaldera joaten bagara?

Mikel eta Nerearen ideia gustatu zaizu, ala? Ba, Mutrikun hiru egun pasatzea pentsatu duzu eta zure ikaskidearekin joango zara, klaseko ondokoarekin.

Elkarrekin jarri, binaka. Bakarka deskribatu idatziz hiru egun horietan zer egingo duzuen, eta gero zure deskribapena besterari pasatu eta zuk ondokoarena irakurri.



Erabaki ze plan aukeratuko duzuen, A ikaslearena ala B ikaslearena!

Ados jarri al zarete?

4.

Bidaia basatiak

Jarduera



Entzumena



Hurrengo erreportaian protagonistak, urte asko pasatu eta gero, berriro bueltatu dira Afrikara haien gustokoa den bidaia egitera.



**Bideoa entzun-
ikusi eta erantzun
hurrengo galderei:**

- 1. Afrikako ze herrialdetara bueltatu dira gure protagonistak?**
- 2. Oraingoan, zenbat itzuli dira Addis Abebara?**
- 3. Zein animalia da taldeko logotipoa?**

Arian, arian, edozer zulatzen da

**ZER
IKASI
DUT?**

Egin dezagun gogoeta txiki bat.

Zeuk ikasi duzuna burura eta paperera ekarri eta gero, konparatu hirunaka antzeko memorizazioa izan duzuen.

Sustantiboak

Adjetiboak

Nozioak